



“MARI KARMEN ODRIOZOLAren OROIMENEZ”

— Batzuk jaio dira gudari,
batzuk poeta,
eta besteak langile;
Eta denon artean jantzi dute
Herri honen historia,
Herri honen izaera.

— Batzuk beharrezkoak ditugu,
baita besteak ere.
Eta zu gudari, poeta eta langile
sortu zinenez,
beharrezkoenetakoa.

— Biziaren aldeko gudari alaia,
lana eta beharraren poeta ixila,
bizi beharrari erantzunez, langile
langile porrokatua.
Bai horixe genuen Mari Karmen!
Eta Euskal Herri hontan,
Lezo ttiki hontan,
holako jende apala behar dugu!

— Guk denok behar zintugun,
egunerokoan, elkarrekiko bizitzan,
eta Aitziber, Araitz, Aroia eta Patxik
guk baino askoz gehiago.

— Joan zara, baina hemen zaude,
gure artean!
Joan zara gure aldetik,
baina zure irriparrak bizirik dirau
gure gogoan.

— Agur gudariari!
agur poetari!
agur emakume langileari!
baina batez ere zuri,
zuri, Mari Karmen Odriozolari!
Agur!!!
Agur, egun haundira arte!!!

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

Oharra: Eskerrik asko Mari Karmen, elkarrekiko lanean erakutsi zenidan lankidetza eta gizabide jator, osasuntsu eta sendoagatik. Mila esker!